



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Osteguna  
2010-04-15**

VIII. URTEA 1.975. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Postontzietara bidaltzen duten iragarkien %47a gaztelera hutsez da

**TOLOSALDEA** UEMAk eta Galtzaundik zortzi herritan aztertu dute propagandaren hizkuntza erabilera

**EUSKARA** Neurketaren sustatzaileek erabileran jauzi kualitatiboa emateko legedia berri behar dela diote 6-7



'Pello Mari Otaño, atzerriko oroi-mina' ekimenaren aurkezpen ekitaldia. E. MAIZ

## OTAÑOEN BERTSOAK PEÑAGARIKANO ETA AMURIZAREN AHOTAN

**ZIZURKIL** Bertsolariaren bertso onenak abestuko dituzte bihar gidoi bat jarraituz, 'Pello Mari Otaño, atzerriko Oroi-mina' ekitaldian 4

## Igarondo eta Alde Zaharra Dendak, uste baino gertuago

**TOLOSA** Batera antolatutako Stock and Braderie ekimenarekin «oso pozik» daude; «uste baino lehen elkartu daitezkeela» dio Adurizek 3

## Musika eta bertsoa uztartzen dituen emanaldia, bihar

**GAZTELU** Erroizpe Azpiko elkarteak antolatutako emanaldia afaria eta gero izango da, 22:30ean 5

argazki lehiaketa

**h**

bidali opor hauetako argazkiak!

NORA BIDALI?

1. Saria

2. Saria

3. Saria

Bus...  
lan...  
bi g...

Ber...  
landetxean bi...  
bi gau...

Lar...  
bi gau...

tolosaldean@tolosaldekohitza.info helbide elektronikora edo HITZAren Tolosako edo Leitzako egoitzetara **Apirilaren 6tik 28ra**

**HITZA** aste santuko argazki lehiaketa

# Festa giroan Mokolo pailazoa zena omenduko dute etzi, Leidor aretoan

**Gizartea** » Euskal Herriko pailazo esanguratsuenek hartuko dute parte; abesti eta sketchak egingo dituzte elkarrekin eta bakarka.

## INIGO TERRADILLOS

Emanaldi berezia, eta aldi berean, hunkigarria izango da etzi eguerdian ikusgai Leidor aretoan. Berezia, Euskal Herriko pailazo ezagunenek elkarrekin eskainiko duten ikuskizuna izango baita. Eta hunkigarria Mokolo pailazoa zenari omenaldia egitea baitute helburu. Ikusmin handia sortu du emanaldiak, eta horren adierazle sarrerak dagoeneko agorturik daudela.

Poxpolo ta Konpainiaren ekimenez antolatuta dute ikuskizuna, eta eurekin batera, beste 15 sudurgorri igokoa dira eszenatoki gaine-



Gure Txokoa elkartean egin zuten pailazoek ekitaldiaren aurkezpena. I.T.

ra: Porrotx eta Marimotx, Txirri, Mirri eta Txiribiton, Txirri, Mirri eta Txiribiton junior, Gari, Montxo eta Joselontxo, Hipo eta Tomax eta Potxin eta Patxin.

Pailazo guztien artean prestatu dute emanaldia. Une batzuetan 16 pailazoak batera antzeztzen ikusteko aukera izango da, eta horrez gain, pailazo talde guztiek bakarka

euren ikuskizunik esanguratsuenak eskainiko dituzte. «Abestiak nahiz sketchak, denetarik izango du emanaldia, festa handi bat izango da, baina, hori bai, ahaztu

## » EKITALDIA

■ **Zer.** Mokolo, eskerrik asko! Mokolo pailazoa zenaren omenezko emanaldia.

■ **Non eta noiz.** Etzi, 12:00etan, Leidor aretoan.

■ **Partaideak.** Poxpolo ta Konpainia, Porrotx eta Marimotx, Txirri, Mirri eta Txiribiton, Txirri, Mirri eta Txiribiton junior, Gari, Montxo eta Joselontxo, Hipo eta Tomax eta Potxin eta Patxin.

gabe Mokolori egiten diogun omenaldia dela», azaltzen du Iker Galarzak.

Hain zuzen ere, Iker Galartza edo Poxpolo pailazoak azken asteetan emanaldi haur prestatzen eginitako lana nabarmendu dute parte hartuko duten gainerako pailazoei. Aktore amezketarrak, bere aldetik, pailazoen artean ikuskizun haur egiteko jaso duten «prestutasuna» azpimarratu du, izan ere, «ez da erraza hainbeste artista ekitaldi baterako biltzea, baina guztiek Mokolori omenaldia egiteko nahia adierazi dute, eta hori benetan eskertzekoa da».

## «Mokolo joan egin da, baina gure artean dago»

**IKER GALARZA** » Poxpolo pailazoa

**Omenaldia** » Azken asteetan buru-belarri ibili da Mokolo zenaren aldeko ekitaldia prestatzen; ahaztezina izango dela dio.

## I. TERRADILLOS

Iñaki Odriozola edo Mokolo pailazoari «agur edo gero arte esateko» zer bait berezia egiteko beharra ikusten zuen Iker Galartzak (Amezketak, 1977). Horrela joan da pixkanaka itxura hartzen Mokolo, eskerrik asko! emanaldia. Amezketarrak dioenez, «Mokolo joan egin den arren, bere oroitza penek gure gure gertu dagoela sentitzeko balio dute».

**Nolako emanaldia osatu duzue?**

Festa bat izango da, baina ahaztu gabe omenaldi bat dela. Benetan emanaldi ahaztezina izango da.

**Nola egin duzue pailazo guztien artean ikuskizuna prestatzeko?**

Prestatzeak lan handia eman digu, uste genuena baino gehiago, izan ere, emanaldi umila izan arren, oso ondo egin nahi izan dugu, berezia baita. Bilerak egin ditugu, eta guztion artean joan gara ikuskizuna egituratzen, beraz, abesti eta sketch denak lotuta daude.



Iñaki Odriozola Mokolo eta Iker Galartza Poxpolo, emanaldi batean. HITZA

**Ze esanahi du zuretzat omenaldi honek?**

Lagun bat hiltzen zaizu, hiletak eta egiten dira, eta ahal duzun bezala egiten duzu aurrera. Gure kasuan, profesionalki jarraitu ala ez ere erabaki behar genuen. Hori bai, bagenekien ezin genuela besterik gabe eszenatokira igo ezer gertatu ez balitz bezala. Mokolori pailazo lagun ugari zituen, bere beste familia zen, eta familia honek dakien bezala gero arte esan nahi zion. Guretzat puntu bat izango da ikuskizuna, puntu eta jarraipen bat.

**Gaztetxoei nola emango diozue Mokolori utzitako hutsuneari?**

Hutsune bat konpartitzen dugu guztiok, eta konturatu behar dugu norbait joaten denean ez dugula gure ondoan izango, baina sentituko dugula gertu nahi dugun guztietan. Horretarako daude oroitza penak. Garrantzitsuena joan dena ez ahaztea da, present edukitzea. Ez da erraza, baina Mokolori present dago. Umeekin askotan heriotzaren gaia tabua izaten da, baina

horri alde xamurra edo positiboa bilatzen saiatu behar dugu.

**Zuretzat bereziki hutsune handia izango da. Zer nabarmenduko zenuke berataz?**

Pailazo izatea erraza dela uste izaten du jendeak, baina ez da horrela. Aktoreek pertsonaia bat antzeztzen dutenean haren larruan jartzen dira. Pailazoen kasuan, ordea, norberak bere barruan bilatu behar izaten du; esan daiteke pailazoa izan daitekeela barruan dugunaren ispilu txikia. Norberaren malzurkeria txikiak, bihurritasunak atera daitezke, edota ontasunak, eta Iñakiren kasuan, hain zuzen ere, bere ontasun guztia ateratzen zuen Mokolo pailazoa izateko. Iñaki oso mutil gozoa zen, eta Mokolo are gozoagoa. Iñakik bihotz handia bazuen, Mokolo zenean oraindik eta handiagoa zuen. Mokolo pailazoa horrelakoa zen, Iñakik benetan ezaugarri horiek zituelako.

**Babes handia jaso duzue azken asteetan.**

Leku guztietatik jasotzen dituzun deiak eta babesak eskertzen dituzu, baina, agian gehien eskertzen dituzunak herritarrengandik, gure jarraitzaile izandakoengandik jasotako elkartzuna da. Esaterako, ikuste hainbat gaztetxok une hauetan gure ondoan egon nahi dutela benetan pozgarria eta eskertzekoa da, eta hori asko atzeman dut azken asteetan.

**Mokolori omenezko ekimen gehiago ari diregitean, abesti bat, esaterako.**

Bai. Tolosako Manent taldeak las-

ter hurrengo diskoa kaleratuko du, eta bertan Pailazo izeneko kantu bat egongo da Iñaki Odriozolaren omenez. Nik entzun dut abestia, eta asko gustatu zait, zoragarria da.

**Orain arte geldirik egon zarete. Erabaki al duzue noiz eta nola jarraitu?**

Geldirik egoteko beharra genuen, eta hala egin behar dela uste dut. Gertatutakoa onartzeko eta konartzeko benetan zer gertatu den balio du. Taldekideak azken hilabeteetan inoiz baino gehiago egon gara elkarrekin, asko eta ondo pentsatu dugu, eta jarraitzea erabaki dugu. Udan hasiko gara, ekaina in-

**«Iñakik barruan zuen ontasun guztia ateratzen zuen Mokolo pailazoa izateko»**

guruan. Azken asteetan Mokolori aldeko emanaldiarekin egon nahi genuen buru-belarri, eta behin hori igarotzean, nolabaiteko puntu eta jarraipena izango denez, emanaldietan pentsatzen hasiko gara. Badakigu une batzuetan asko kostako zaigula, baina aurrera egin behar dugu. Algarak egin eta egin arazten jarraitu behar dugu. **Etziko emanaldirako sarrera guztiak agortu dira.**

Bai, hala da. Pena da, omenaldian izan nahi zuen jende asko joan ezinik geratuko delako. Pentsa, kartel ugari kalean jarri gabe utzi ditugu jende gehiagok pena hori izan ez dezan.

## MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta  
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Ileapaintzailea.** Ibarra 0 ilea-paindegi batek laguntzailea behar du. metxa2@yahoo.es. 609 79 27 87.

# Igarondo eta Alde Zaharra Dendak «uste baino lehen elkartu daitezke»

**Ekonomia** » Bi Merkataritza Elkarteek antolatu dute Stock and Braderie ekimena eta emaitzarekin «oso gustura» gelditu dira.

**ASIERIMAZ**

Asteburuan, lehen aldiz elkarrekin irten ziren kalera Igarondo eta Alde Zaharra Dendak. Bi merkataritza elkarte hauek Stock and Braderie ekimena antolatu zuten eta emaitzarekin «oso pozik» agertu dira. Aurrera begira zer egin behar duten galdetuta, bi elkarten arteko «fusioa» aipatu du Agustin Aduriz merkataritza dinamizatzaileak: «Ez dut ezer aurreratu nahi baina pentsatu baino lehen elkartu gaitzke».

**5.000 lagun Beotibarren**

Adurizek balantze «positibo» egin du «bi ekimenen inguruan». Beotibar pilotalekuan adibidez, Stock-erako, «3.900 lagun inguruk ordaindu zuten sarrera. 16 urtetik gorakoek bakarrik ordaintzen zuten, gutxi gora behera 5.000 pertsonak bisitatu zuten bi egunetan zehar burutu zen ekimena».

Braderie antolatu zuten lehen aldian izan da aurtengoa. Hasieran saltzaileak «beldurturik» aurkitzen ziren, jendearen erantzuna nolakoa izango zen ez baitzekiten.



Stock and Braderie ekimena ospatu dute asteburuan Tolosan. ENERITZ MAIZ

Baina merkataritza dinamizatzaile onartu duenez, «batzuk hilero ere gustura antolatuko lukete». Tolosako 29 dendek jarri zuten Braderie-a kalean: «Oso ondo joan da. Guztiak errepikatze gogoz gelditu dira. Hurrengoa noiz izango den ere galdetu dute, baina orain hankak lurrean jarri eta lanean jarraitzeko garaia da. Baina, bai, errepikatuko dugu» dio Adurizek. Hobetzeko zer dagoen galdetu-

ta, haurrak zaintzeko gunea aipatu du dinamizatzaileak: «agian ez diogu behar bezain beste publizitate egin».

**Berrikuntzeekin ere gustura**

Lehen berrikuntza Stock-erasartu ahal izateko jarri duten sarrera izan da, «baina euro bateko txartela erabat sinbolikoa da. Hala eta guztiz ere, antolakuntza sarerako ongi etorriko da». Horretaz gain,

saltzaileek Beotibarren argi indarra, ura eta janari zerbitzua ere eduki dute lehen aldiz. Honek, Beotibarreko egonaldia hobetu duela aipatu du Adurizek.

**Bi Elkarteak bat**

Igarondo eta Alde Zaharra Dendak elkarlanean gustura ibili dira eta horrek jarraipena eduki lezake. Izan ere, Agustin Adurizen hitzetan, «fusio bat egiteko unean gau-

de. Intentzioa badago, izena edo marka bat ere proposatzeko asmoa daukagu. Gauzak ondo doaz, bere bidea egiten ari da helburu hau. Ezer zehatzik aurreratu nahi ez dudan arren, pentsatu baino lehen elkartu gaitzke. Kasu horretan bi elkarteak desagertu egingo lirarteke eta berria sortu».

Adurizek argi dauka hori dela bidea: «Nire ustez oso garrantzitsua da elkarlanean ibiltzea, indar gehiago izateko. Ondoren ostalariak eta beste zerbitzuek ere atek zabalik edukiko dituzte. Asteburuan ikusi dute elkarlan horren indarra. Denontzat onura ekarriko luke. Adibidez, Gabonetan bi kampaia desberdin eduki genituen. Ez da berdina bat indartsua egitea edo bi makalagoak burutzua».

**Zozketako irabazleak**

Braderie-n erosketak egiten zituen txartel bat betetzeko aukera zuten, zozketa batean parte hartzeko. Irabazleak atzo kaleratu zituzten. Sariak Tolosan egingo diren kultur ekitaldietara joateko bi sarreko bikoitz dira.

Hauek izan dira zozketako irabazleak:

**» ZOZKETA**

**Braderie-ko irabazleak**

- **Aloña Lizarra:** Arrastoa, hilak 16.
- **Cristina:** Ken Zazpi, hilak 23.
- **Josefa Ibarbia:** XL Town, hilak 30.
- **Marijo Hernandez:** Euskarazetarnol, maiatzak 21.
- **Amalia Jauregi Ugartemendia:** Alos Quarter, maiatzak 28.

# Diputazioak lursail bat erosi du Amezketan

**Ingurumena** » Aralar parkearen sarreran aparkalekua prestatzeko erosi dute Amarlekutan lursaila.

**ERREDAKZIOA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Aralar parkearen sarreran aparkaleku bat egiteko lursaila erosi du Amezketan.

Baliabide Naturalak Antolatze-ko Planean hainbat erabilera eta jarduera araututa daudela aipatu dute Diputaziotik, «horien artean kalitatezko eskaintza baten bitartez jolas eta atseginerako erabilera bultzatzea. Horren babesean, jendeak Aralarlarko natura ingurunea hurbiltzeko aukera du, naturaz gozatzea bateratuz tokian tokiko garapenarekin eta natura ingurunea zaintzarekin batera».

Ido horretan, Albatzisketa (Larraitz), Lizarrusti eta Amezketa (San Martin) Aralar parkeko sarbide gisa finkatzea proposatzen du Foru Aldundiak. «Horregatik, jen-

dea ingurune natural honetara hurbildu dadin, parkeak sarbide eta aparkaleku egokiak izan behar ditu, nahitaez».

**Konponbidea**

Gaur egun Amezketan dauden hiru aparkalekuak (eliza, San Martin eta Larrendo) urruti aurkitzen omen dira Amarlekutik, hau da, motordun ibilgailuz irits daitekeen tokitik. «Hori dela eta, parkearen erabiltzaile askok, ibilgailua

aparkaleku prestatuetan utzi ordez, Amarlekutarako bidea hartzen dute bertaraino joateko, eta ibilgailua bidean zehar uzten dute», Foru Aldundiaren esanetan.

Honi irtenbidea eman nahian, «eremu babestua den leku batean ordenarik gabe aparkatzean ibilgailuek sortzen duten inpaktua gutxitzeko», Amarlekutan bertan lursail bat egokitu eta aparkaleku jartzea erabaki du.

Ingurua aztertu dutela ere aipatu dute, «eta kontuan hartuta erraz higitzen dela eta lurra galtzeko arriskua duela, eta, beraz, aparkaleku egokitzean lurra ahalik eta gutxien mugitzea komeni dela», Mendieta eta Natura Ingurune-ko Zuzendaritza Nagusiak pentsatu du inguruan dagoen eremu lau bakarra dela aparkaleku jartzeko lekurik egokiena. Lursailak 10.393 metro karratu eta 30.000 euroko prezioa ditu.



Txindoki Aralartik ikusita. HITZA

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**ATE IREKIAK**

Goierriko campusa  
**INGENIARITZA**

APIRILAK 17  
larunbata - 11:00  
ORDIZIA

etorri aurretik  
izena eman!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

# 'Pello Mari Otaño, atzerriko oroi-mina' bertso ekitaldia grabatuko dute bihar

**Zizurkil** » Angel Mari Peñagarikano eta Xabier Amuriza bertsolariek abestuko dituzte Otañoaren bertsorik onenak.

## ENERITZ MAIZ

Atzo aurkeztu zuten Zizurkilgo udaletxean, bihar 20:00etan Atxulondo kultur etxean egingo den emankizuna. Maria Angeles Lazkano herriko alkatea, Julian Arrastoa Teodoro Hermandorena Kultur Taldeko kidea eta Angel Mari Peñagarikano eta Xabier Amuriza bertsolariek izan ziren bertan.

Maria Angeles Lazkanok hartu zuen hitza: «Maiatzaren 6an, Pello Mari Otaño hil zeneko ehungarren urteurrena izango da eta urterro egiten dugun Maiatza Saltsan programaren barruan, Otañori zuzendutako ekintzak antolatuko genituela erabaki zen eta ekitaldiei hasiera biharko bertso saioarekin emango zaio».

Jarraian, Julian Arrastoa Teodoro Hermandorena Kultur Taldeko kidea hitz egin zuen: «Pello Mariren mendeurrena gainean zela konturatu ginenean, Zizurkil herriak eta Euskal Herri osoak berari omenaldia egitea merezi zuela uste genuen» eta bere inguruan hainbat ekintza antolatzea proposatu zutela gaineratu zuen. «Guri bere bitzita eta garai hartako historia interesatzen zaizkigu eta hau gaitzat hartuta hamaika ekintza prestatu ditugu baina hemen, bihar egingo den ekitaldia aurkeztu nahi dugu» eta hori aurrera eramateko «Angel Mari Peñagarikano bertsolariarekin jarri ginena harremanetan» azaldu du. Maiatzean zehar izango diren ekintza guztiak apirilaren amaieran aurkeztuko dituzte baina,



Angel Mari Peñagarikano, Julian Arrastoa, Maria Angeles Lazkano eta Xabier Amuriza aurkezpen ekitaldian. E. MAIZ

biharkoa berotzen hasteko ekintza bat izango da. Pello Mari Otañoen bertso bildumatik onenak aukeratu dituzte eta gidoi baten bidez, Peñagarikano eta Amurizak, Atxulondon abestuko dituzte.

## Amuriza eta Peñagarikano

Herritarren ostan, bertsolariek beraien azalpenak emateko aukera izan zuten. Kultur Taldeko kideek, Angel Mari Peñagarikano-arengana jo zuten, zerbait berezia egiteko asmoa izan eta laguntza bila.

«Gu gai honetan adituagoak gizona eta zerbait berezia egiteko goa adierazi zidaten eta nolabait, bazekitelako ni, batik bat, Otaño zalea naizela». Egun batzuk eskatu zizkien Angel Mari Peñagarikano, zer eta nola egin pentsatzeko eta gauza polita egin zitekeela eta Xabier Amurizari deitu zion zer asmo zegoen azalduz. Amurizak interesa azaldu eta «Itziarko gaso-

lineran jarri genuen hitz egiten hasteko hitzordua eta bertan hasi ginen hizketan» gaineratu du Peñagarikano.

Xabier Amurizaren lehen hitzak hauek izan ziren: «aitortu behar dut niretzat egun garrantzitsua dela gaurkoa eta egin behar dugun saioa edo egin behar ditugun bi saioetan, parte hartu eta protagonista izateko aukera handia da. Peñak hori proposatu zidanean ez nuen izan dudarik baietz esateko» adierazi zuen.

«Hasiera batean, maiatzaren 15ean egin behar dugun bertso saio handi horren egitura antolatzea zen baina horrekin batera, berehalaxe pentsatu nuen, aukera aparta eta ezin hobea izango zela aurkezten hari garen emanaldi hau egitea ere» azaldu zuen.

Bururapen honen berri Peñagarikano azaldu zion eta honen baietzarekin, antolatzaileei azaldu zieten eta hauen onespenarekin,

aurrera egin zuten. Beraz, bi plan zituzten osatzeko, maiatzaren 15ean, frontoian egingo duten bertso saio handia eta baita, bihar egingo duten formatu txikiagokoa.

## 'Pello Mari Otaño, atzerriko oroi-mina'

Nahiz eta formatu txikiagokoa izan «askoz ere garrantzia handiagokoa» dela adierazi zuen Amurizak. «Azken batean, Pello Mari Otañoen mendeurrena pasako da, ekitaldiak pasako dira eta merezi duten distira guztia izango dute baina gertaera horiek hor bukatuko dira».

Aurkezpen edo bilduma zabal bat egin dute eta 82 bertso izan dira, bere bertso guztietatik aukeratuak. Aukeraketa zabal egin dute eta kantaldia gidoi bati jarraituz egingo dute. «Estiloa, izaera, ideiak, bertsokera...ondo islatzeko eta ondo jabetzeko moduan eta kalitatez ere onenak» izate nahian izan

## » PELLO MARI OTAÑO, 100. MENDURRENA

### Bihar, hilak 16

■ **20:00etan.** Ordu eta erdiko saioa izango da Atxulondo kultur etxean.

■ **'Pello Mari Otaño, atzerriko oroi-mina'.** Xabier Amuriza eta Angel Mari Peñagarikano Otañoen bertso onenak abestuko dituzte gidoi bati jarraituz.

■ **Grabaketa.** Bertso saioaren emanaldia grabatu egingo dute eta hasiera batean Cd-an eta aurrerago Dvd formatuan argitaratuko dituzte.

■ **Sarrera.** 3 euro ordaindu behar da.

dute. Eta «onenak izateaz gain, bere ideien, biografiaren, sentimenduen adierazgarri izate ere lortu nahi izan dugu eta bere bizi-tzaren ezagutzarako ere erakusbidetzate» gaineratu zuten bizkaitarrak.

82 bertso onen bildumarekin, Amurizaren esanetan «bere obra ondo bildua, ondo laburtua eta nahiko zabal hartua geratuko da». Horixe da bihar eskainiko duten saio horrekin utzi nahi dutena. Pello Mari Otaño, Zizurkilgo semea izanagatik, bere bertsoak Euskal Herri osoan abestuki izan dira eta oraindik ere abesten direlagogoraz nahi izan zuen Amurizak eta «altxor nazional» bezala definitu zituen. Era berean «ikusizun-entzunkizun hau, Euskal herriko beste edozein lekutan errepikatzeak aukera izango bagenu gustura egingo genuke» gaineratu zuen.

Bihar zuzeneko grabaketa egingo dute eta dokumentu hori hor geratuko da; entzulea gozarazte dute helburu. Peñagarikano eta Amurizak abestuko dituzte eta Cd batean grabatuta argitaratuko dira. Lan handia eskatzen duenez, aurrerago, eta bertso saio handiko irudiek, Dvd bat egingo dute. Ekimenaren aurkezpen ekitaldia «entzuleak gozatzeren gonbidatu nahi ditugu» esanez agurtu zuten atzokoan.

# Igandean lehen aldiz Dantzari Txiki eguna

**Asteasu** » Egun osoko jaia egingo dute 11:00etan hasita. Alegia, Tolosa eta Amasa-Villabonako dantzariak ere izango dira.

## E. MAIZ

Igandean, hilak 18, Asteasuko Udalak antolatuta, lehen aldiz Dantzari Txiki Eguna ospatuko dute herrian egun guztian zehar.

Herriko dantzari txikiek gain, Alegia, Tolosa eta Amasa-Villabonako dantza taldeak gonbidatu dituzte bertan parte hartzera. 11:00etan herriko eta kanpotik



Duela gutxi izan zen Dantzari Txiki eguna Tolosan. I. TERRADILLOS

gerturatuko diren dantzari txiki guztiak bilduko dira eta hamaikako eder bat egingo dute indarrak hartzeko.

Ondoren kalejiran ibiliko dira herrian zehar eta 13:00etan, guztiak frontoian elkartuko dira dantza emanaldia egiteko. Behin saioa bukatuta, Asteasuko dantzarien etxetara joango dira bazkaltzera, Tolosa, Alegia eta Amasa-Villabonatik joandako dantzariak.

Bazkaldu ostean ere, ez da dantzarako unerik faltako eta dantza saioa izango da baina kasu honetan librea izango da. 17:00etatik aurrera jarraipena emango diote jaiari, erromeria estiloan.

## 45 ikasle dantza ikasten

Lehen aldiz antolatuko dute hone-lako jai bat eta Udal teknikariak azaldu duenez «azken bi urte hauetan fuerte dabil dantza taldea eta honelako egun bat antolatzea egoki ikusi genuen. Gaur egun, 6 eta 12 urte arteko 45 ikasle dabilza dantza ikasten» azaldu digu.

Adin tarte inguru horretakoak etorriko dira Asteasura beste herrietatik ere eta elkarri urteetan zehar ikasitako erakusteko aukera izateaz gain, lagun berriak egiteko aukera ere izango dute.

Herritar guztiak gonbidatu dituzte Dantzari Txiki egun honetan parte hartzera.

# Afaria eta 'Piano bat bertsotan' emanaldia biharko gaua alaitzeko

**Gaztelu** » Erroizpe Azpiko Kirol eta Kultur elkartean izango dira bi ekitaldiak; lehendabizikoa 21:00etan, eta bigarrena 22:30ean.

## ERREDAKZIOA

Herriko kultura batzordeak antolatuta afaria eta emanaldi berezia izango dira bihar Gaztelun. Erroizpe Azpiko Kirol eta Kultur elkartean izango dira bi ekitaldiak. Afaria, 21:00ak aldera izango da, eta 40 lagunetik gora elkartuko dira bertan.

Afalostean, musika eta bertsoa uztartzen dituen emanaldi berezia gozatzeko aukera izango dute gazteluarrek. 22:30etik aurrera, Ainhoa Ansa, ahotsarekin eta gitarrarekin, eta Jagoba Astiazararekin, pianoarekin, frogatuko dute musikarekin ere egin daitekeela bertsotan hitzekin egiten dena.

Ikuskizun guztietan entzuleria garrantzitsua bada, *Piano bat bertsotan* emanaldian publikoak funtesko zeregin bikoitza izango du. Alde batetik, programa erabaki eta bestetik, abestuz, emanaldi beraren partaidea izatea. Kontzertu honetan, entzuleek erabakitzen dute zer entzun eta abestunahi du-



Ainhoa Ansa eta Jagoba Astiazaran 'Piano bat bertsotan' emanaldiko unea batean. HITZA

ten: papertxotan euskal kantutuen izena idatzi eta poltsa batean sartuko dute. Zozketaren bidez erabakiko da zer jo behar duten musikariek.

Ansarekin eta Astiazararekin, Euskal Herrian hain errotuta da goen kantatzeko ohituraz gozatzeko parada izango dute gazteluarrek eta gure kanta kuttunenak, zaharrak nahiz berriak, elkarrekin berriz ere abesteko.

Ikuslearen eta musikarieren arteko joko bat izango da zuzeneko, bat-batekoan, bertsolaritzaren antzera. Ikusleek musikarierik kanta bat edo gai bat proposatu beharko diete, eta hauek aurretik ez ez jakin gabe eta aurrez ez ez prestatu gabe, kanta horren gainean inprobisatuko dute. Hortik dator, hain justu, kontzertuaren izenburua.

Beraz, entzuleak berak erabakiko du zein kanta entzun. Inprobi-

## » EGITARAUA

### Apirilak 16, bihar

■ 21:00. Afaria Erroizpe elkartean.

■ 22:30. 'Piano bat bertsotan' emanaldia Erroizpe elkartean bertan, Ainhoa Ansa eta Jagoba Astiazararen eskutik.

satzeaz gain, musikariek euren abestiak ere joko dituzte biharko zuzenekoan.

## Laburrak

### 'Precious' filma ikusgai izango da asteburuan

**VILLABONA** » Gurea antzokian Lee Danels-ek zuzendutako *Precious* film estatubatuarra ikusteko aukera izango da asteburu honetan zehar. Lehendabizikoa emanaldia bihar 22:30ean izango da. Larunbatean bi saio izango dira: 19:30ean eta 22:30ean. Astelehenen berriz, ikuslearen egunean, 21:30etik aurrera ikusi ahal izango da.

### Argazkigintza digitaletako ikastaroa bihar hasiko da

**VILLABONA** » Fleming ikastetxeke guraso elkarteak antolatuta, bihar eta hilaren 23an argazkigintza digitaletan inguruko ikastaroa izango da. 18:00etatik 19:30era bitarteko iraupena izango dute saioek eta Arroako eskolaren emango dira. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, oraindik plazak gelditzen dira. Ikastaro honen prezioa 15 eurotako da. Interesatuak 658-72 06 64 telefono zenbakira deituta eman dezakete izena.

### Gazteen txirriindularitza lasterketa jokatu da etzi

**ALEGIA** » Langaurre txirriindulari elkarteak antolatuta, gazteei zuzendutako txirriindulari proba jokatuko da larunbatean, Alegian. 16:30ean abiatuko dira Kiroldegi ondotik, eta herritik barrena, Larraitx auzoa, Etxe-txuri bidea eta Fabrena zeharkatuko dituzte. Lasterketan infantil eta benjamin mailako txirriindulariek hartu ahal izango dute parte. Izen-ematea han bertan egin daiteke lasterketa hasi baino lehentxeago.

# Bengoetxea VI. eta Olaizola I. pilotariek abiaraziko dute etzi, Buruz Burukoa

**Leitza** » Atzo goizean aukeratu zuten materiala nafarrek; gaur gauza bera egingo dute Barriolak eta Martinez de Irujok.

## ERREDAKZIOA

Leitzako bi bizilagunen arteko lehiak emango dio hasiera Buruz Buruko txapelketa berrituari. Oinatz Bengoetxea eta Asier Olaizola aurrez aurre izango dira etzi Iruñeko Labrit pilotalekuan. Jaialdia 17:00etan hasiko da, eta hiru partidak osatuko dute jardunaldia. Leitzarrena, arratsaldeko bigarrena izango da. Honen aurretik Berasaluzeko VIII-Apraiz eta Saralegi-Begino bikoteen arteko partida ikusi ahal izango da. Chafee-Oteiza eta Diaz-Zearrak emango diote amaiera jaialdiari.

Atzo Labriten bertan aukeratu zuten larunbateko partidarako materiala nafarrek. Espero bezala Olaizola I.ak Bengoetxea VI.ak baino pilota astun eta indartsuagoak aukeratu ditu. Aste honetako ez da buruz-buru elkarren aurka

jokatzen duten lehen partida. 2008ko txapelketan finalerdia jokatu zuten. Asier Olaizola zen favorito baina Oinatz Bengoetxeak 22-16ko emaitzarekin irabazi zion.

### Gaur Barriolaren txanda

Pilota aukeraketekin jarraituz, gaur Juan Martinez de Irujo eta

Abel Barriolaren txanda izango da. Eibarko Astelenan dute hitzordua 11:30ean.

Gipuzkoako herri horretan bertan, igandean izango da lehia. Jaialdia 17:00etan hasiko da, eta lehendabizi, Berasaluzeko IX-Pascual eta Idoate-Laskurain bikoteen arteko izango da.



Aurtengo binakako txapelketako irudietako bat. A. CANELLADA

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

## ATE IREKIAK

Goizko Funtzioak

**ARRASATE**  
APRILAK 24 larunbata - 11:00

**ORDIZIA**  
APRILAK 17 larunbata - 11:00

Erreparazioa

**IRUN** 2. zikloa  
MAIATZAK 6 osteguna - 18:00

Manabate eta Herriak

**ESKORRIATZA**  
APRILAK 22 osteguna - 18:00

areto nagusian,  
etorri aurretik izena emari

902 110 436 - www.mondragon.edu/prest

# Postontzietan jasotako propaganda agirietan gaztelania da nagusi

**Euskara** » UEMAK eta Galtzaundik bultzatutako neurketa baten arabera, eskualdean propaganda agirien %47a gaztelania hutsez jasotzen da.

## ERREDAKZIOA

UEMAK eta Galtzaundik, zenbait herritarren laguntzarekin, eskualdeko etxeetan jasotzen den propaganda neurtu dute hizkuntzaren aldetik eta gaztelania nagusitzen dela ondorioztatu dute. Datuen arabera, jasotako propagandaren %47a gaztelania hutsez jasotzen da.

Propaganda bidaltzen duten enpresek duten hizkuntza erabilari begiratu gero, gaztelaniaren nagusitasuna areagotzen da. Izan ere, gaztelania hutsezko bidaltzailei gaztelania nagusi den agirien bidaltzaileak batuz gero, %75aren bueltako ehuneko ateratzen da.

Egitasmoaren egileek zehazten dutenez, «lebitasuna zenbatekoa den jakiteko, egokiagoa da bidaltzaileen datuei erreparatzea agirien datuei baino. Izan ere, ele biz dauden agiri gehienak Eroskik bidalitakoa dira, eta horrek lebitasunaren garrantzia dezentente puzten du».

Euskara hutsezko agiriak «hutsaren hurrena» direla diote: «Bi herritan baino ez dira jaso halako agiriak eta bi bidaltzaileenak dira». Bestalde, eragileek ondorioztatzen dutenez, «enpresek ez dute kontuan hartzen UEMAKo udalerritan jardura publiko eta pribatuak euskaraz egiteko hautua. Ez da, beraz, bereziki argi egiten UEMAKo herrien eta UEMAtik kanpoko herrien artean».

Pixkanaka-pixkanaka aurrerapausoak ematen direla diote, baina «benetako jauzi kualitatiboa ez da etorriko publizitatean euskararen erabilera arautzen den lege bat indarrean jarri arte. Zoritxarrez, egungo lege esparruak ez du bermatzen agirietan euskararen presentzia gaztelaniazkoaren parekoa izaterik, errealtateak argi erakusten duenez».

Enpresa batzuek euskarari balio komertziala ematen diotela azaltzen dute azterketaren egileek: «Hortik dator, segur aski, enpresari euskarazko izena jartzea, euskarari publizitatean euskaintzea edota webgunean euskaraz nabigatzeko aukera ematea».

Legezko ezarpenak aldatu ez ean, «ahalegin koordinatua egin behar da administrazioen, kontsumitzaileen eta enpresen barruko eragileen bitartez», zehaztu dute. «Publizitatean, ere, euskara baztertzen duten enpresen jarrera aldatzeko, bereziki garrantzitsua iruditzen zaigu euskaldunok norbanako eta kolektibitate gisa du-

gun indarrak jabetzea eta euskarari toki duina ematen dioten enpresen alde egitea eta euskara baztertzen duten enpresetara ez jotzea», diote eta gaineratu: «Euskaldunak modu koherentean jokatzeko indarra aktibatu behar da».

## Datu biketa

Tolosaldeko zortzi herritan etxeetako postontzietan jasotako propaganda agiriak bildu dituzte, enpresen esku orriak, katalogoak... eta hizkuntzaren erabilerearen aldetik neurtu. Horietatik lau herri UEMAn daude: Aduna, Alegia, Anoeta eta Irura. Neurketa egin den UEMAtik kanpoko herriak Tolosa, Villabona, Ibarra eta Zizurkil izan dira. Herri horietan 24 herritarrek hartu zuten konpromisoa, postontzietan jasotakoa eragilei emateko.

Neurketa egiterakoan hiru gauzari erreparatu diete agirietan. Alde batetik, hizkuntzaren erabilera, hau da, agiria zein hizkuntzatan zegoen aztertu dute. Bestalde, agirian iragarritako webgunean informazioa euskaraz eskuratu daitekeen ala ez aztertu dute. Horrez gain, beste datu batzuk ikertu dituzte: euskara txukuna den, ulertzen den edo ez, iragartzen diren produktuetan euskara erabiltzerik badagoen... Azken horretan, kultur produktuetan (liburuak, pelikulak, musika...) euskarazko iragartzeak badagoen edo ez eta telefono mugikorrek eta abarrak euskaraz konfiguratzeko aukera ematen duten begiratu dute.

## Gutun bidalketa

Behin neurketaren datuak aztertuta, sei hilabetera gutun batzuk prestatu zituzten enpresei bidaltzeko. Alde batetik, ondo egindakoagatik zoriontzeko eta berdin jarrai dezaten eskatzeko, eta, bestetik, euskararen erabilerearen aldetik zuzendu beharrezkoak zuten ditzaten eskatzeko.

Gutunak Galtzaundik eta UEMAK prestatu zituzten, eta zazpi udal eta alkateek sinatuta bidali ziren. Tolosako Udalak uko egin zion gutunak bidaltzeari, eta Tolosari zegozkion gutunak Galtzaundik bidali zituen.

Guztira 265 gutun bidali zituzten eta hiru erantzun jaso. Horietako batek, Carrefour enpresak, gutun bidez erantzun die euskararen normalizazioan aurrerapausoak ematen ari direla esanez. «Webgunea eta propaganda agiriak euskaratzea falta zaiela, beste-



UEMAko Imanol Haro eta Galtzaundiko Amaia Doyague, euskara hutsez jaso dituzten agiri bakarrak eskuetan eta gaztelaniazkoak hankapean ditzuztela. GALTZAUNDI

## «Hizkuntz eskubideen urraketa»

### ERREDAKZIOA

Egitasmoaren harira, propaganda agiriak euskaratzeko enpresek inolako betebeharririk duten aztertu dute UEMAK eta Galtzaundik. Horretarako Hizkuntza Eskubideen Behatokiarekin jarri ziren harremanetan aholkularitza jasotzeko.

Behatokiaren irakurketaren arabera, legearen edukian ez dago heldulekurik enpresei eskatzeko agiriak euskaraz bidal ditzaten. Batetik, Hego Euskal Herrian, publizitatea arautzen duen lege nagusia azaroaren 11ko 34/1988 Pu-

blizitateari buruzko Lege Orokorra da, eta, bertan zehazten denez, legez kontrako publizitatea hau da: Konstituzioak jasotzen dituen eskubideen edota balioen kontrako; publizitate engainagarria; publizitate desleiala; publizitate subliminala; eta zenbait produktu, zerbitzu edo ondasunen publizitate zehatza arautzen duenaren aurka egiten duen publizitatea.

Bestetik, EAEn, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuaren 6/2003 Legea, abenduaren 22koa, dago. Lege horren 38. artikuluan dioenez, kontsumitzaile eta erabil-

titzaileei zuzendutako produktu, ondasun eta zerbitzuen eskaintza, sustapena eta publizitatea, erabiltzaileentzako euskarria edozein dela ere, bi hizkuntzetan egon behar du. Hala ere, kontuan hartu behar da artikulu hori erakunde publikoei eta erakunde publikoen mendeko enpresei dagokiela. Beraz, gainerako enpresei ez zaizkie hizkuntz irizpiderik ezartzen.

UEMAk eta Galtzaundik, halere, argi uzten dute «lege urraketa» ez egoteak ez duela esan nahi hizkuntz eskubideen urraketa ez dagoenik».

» BILDUTAKO AGIRIAK ETA HIZKUNTZ ERABILERA

HERRIA	AGIRIAK	E	Ele biz	G>E	G
Aduna	29	0(0%)	25(%87)	1(%3)	3(%10)
Alegia	91	0(0%)	53(%58)	7(%8)	31(%34)
Irura	11	0(0%)	6(%55)	1(%9)	4(%36)
Anoeta	36	0(0%)	21(%59)	3(%8)	12(%33)
Ibarra	125	2(%1)	46(%37)	17(%14)	60(%48)
Zizurkil	74	0(0%)	40(%54)	5(%7)	29(%39)
Villabona	95	1(%1)	39(%41)	11(%11)	44(%48)
Tolosa	209	10(%5)	56(%27)	10(%5)	133(%63)
<b>TOLOSALDEA</b>	<b>670</b>	<b>13(%2)</b>	<b>286(%43)</b>	<b>55(%8)</b>	<b>316(%47)</b>

» AGIRIEN BIDALTZAILAK ETA EUREN HIZKUNTZ ERABILERA

HERRIA	ENPRESAK	E	Ele biz	G>E	G
Aduna	6	0(0%)	5(%83)	0(0%)	1(%17)
Alegia	27	0(0%)	9(%33)	3(%11)	15(%56)
Irura	7	0(0%)	2(%29)	1(%14)	4(%57)
Anoeta	16	0(0%)	5(%31)	2(%12)	9(%56)
Ibarra	42	2(%5)	5(%12)	10(%24)	25(%59)
Zizurkil	21	0(0%)	4(%19)	5(%24)	12(%57)
Villabona	47	1(%2)	17(%36)	4(%8)	25(%54)
Tolosa	75	2(%2)	18(%24)	7(%9)	48(%65)

E: Euskaraz. G>E: Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago. G: Gaztelera.

» AGIRIETAN IRAGARTZEN DIREN WEB GUNEETAN BADAGO INFORMAZIOA EUSKARAZ ESKURATZERIK?

HERRIA	WEB GUNEAK	EZ	BAI
Aduna	1	0(0%)	1(%100)
Alegia	9	8(%89)	1(%11)
Irura	3	2(%67)	1(%33)
Anoeta	13	11(%85)	2(%15)
Ibarra	28	21(%75)	7(%25)
Zizurkil	10	9(%90)	1(%10)
Villabona	26	23(%89)	3(%11)
Tolosa	38	32(%84)	6(%16)

akbeste, eta arazo nagusia erabaki-gunea Madrilren egotea dela azaltzen zuen», diote egitasmoaren bultzatzaileek.

Beste erantzuna Eroski enpresatik jaso zuten. Horrek ere gutun bidez erantzun zieten euskara planaren baitan euskararen aldeko neurriak hartzen dituztela, eta kultur produktuetan euskarazkoak ere jartzea hartuko dutela kontuan. Halere, UEMA eta Galtzaunditik azaldu dutenez, gutuna jaso ondoren ez dute ikusi kultur produktuen eskaintzan aldaketarik izan denik, ez baitira euskarazkorrik azaltzen.

Hirugarren erantzuna ere gutun bidez jaso zuten, Moonbeauty estetika zentrotik. Bertan zehazten zuenez, euskararen aldeko jarrikeria adierazi du hainbat jardueratan, publizitatea jarri Galtzaundin eta HITZAn, dirua emanez

Kilometroei eta Korrikari..., eta esku orriak euskaraz ez jartzearen arrazoiak «terminologia aldeko zailtasunak» direla esanez.

Egitasmoaren egileek gaineratu duenez, «bakar batek ere ez du konpromiso zehatzik hartu euskararen erabileran aldaketarik egiteko».

Eragileekin harremanetan jarri ez badira ere, bi aldaketa nabaritu dituzte agiriaren hizkuntz erabileran. Batetik, Berezi arropa dendak aldatu du hizkuntza erabilera gutuna bidali ondoren. Aurreneko sei hilekoan, Berezi arropa dendak gaztelania hutsez bidali zuen propaganda agiriak, eta bigarrenengoan ele biz. Gainera, lehen ez bezala, webgunea ele biz dago. Bestetik, lehenengo sei hilekoan Renault Autoberrik gaztelania hutsez bidali zuen propaganda, eta bigarrenengoan euskaraz hutsez.

# Ilunabar literarioa bihar

**Aduna** » Txolarrenen 10. urteurrenaren harira antolatuta dute; 20:00etan hasiko da ekitaldia udaletxe azpiko aretoan.



Txolarrenen urteurrena dela eta Tolosan eginiko bertso saioaren irudia. HITZA

ERREDAKZIOA

Txolarre irratia 10. urteurrenaren ekitaldien barnean, Ilunabar literarioa egingo dute bihar Adunan. Udaletxe azpiko aretoan izango da 20:00etan.

Ekitaldia errezitaldi batean oinarritzen dela argitu du Txolarre irratia. Sortzaileek 'irratia' hartu dute gaitzat, eta abiapuntu honetatik idatzi dituzte Adunan eskainiko dituzten poemak, narrazioak edota bakarriketak.

Bergarako Idazle Eskolako ki-

deak izango dira euren sormen lanak eskainiko dituztenak, Txolarre irratiko zenbait kidek gidatuko duten emanaldi berezian. Idazle eskola graduondoko ikasketa bat da eta etorkizuneko hamaika idazle bildu eta prestatu ditu azken urteetan. Adunako ekitaldian gaine-

ra, sorpresa gisa, zenbait gonbidatu ere izango dira, hitzaren artean maisu direnak tartean.

«Gehiago jakin nahi? Apirilak 16ean, 20:00etan Adunan. Ahoz zein idatziz, hitzaren magia Adunara iritsiko da. Gonbidatuta zaudete», esan dute irratiko kideek.



# Istripu ikusgarria Adunako zubian

**ADUNA** » Istripu ikusgarria gertatu zen atzo Villabonatik Adunarako errepidean, Oria ibai gaineko zubian. Adunarako noranzkoan zihooan auto bat zubiaren hesia bota eta ibaira jauzi zen. Gidaria, gizonzkoa, autoan bakarrik zihooan, eta bere kabuz atera ahal izan zuen autotik. Suhiltzaileek lagundu zuten ibaitik atere-

ratzen, eta ondoren, Asuncion klinikara eraman zuten istripuarengatik zituen zauriak azterttera. Ertzaintzak ez du jakinarazi zaurien larritasuna. Istripuak ikusmin handia sortu zuen bizilagunengan, jende ugari gerturatu zelarik bertatik bertara autoa ibaira nola erori zen ikustera. I.TERRADILLOS.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



15°  
6°

GOIZA OSKARBI  
ARRATS. OSKARBI  
BEROENA 16°  
HOTZENA 7°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Batzuk atzerrira, ondoko herrialdeetara besteak, eta badira etxetik gehiegi urrundu gabe Aste Santu ederrak pasa dituztenak. Guztiak dira baliagarriak XI. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko.

## Argazki ederrak nonahi



**TOLOSA** ●  
«Ilunabar eder bat Kantabriako San Vicente de La Barquera herrian», azaldu du Gorkak bere argazkia bidaltzerakoan. GORKA ZUBILLAGA



**VILLABONA** ●  
«Ez da beharrezkoa etxetik ateratzea argazki interesgarriak ateratzeko. Argazki hau etxetik atera gabe aterata dago, zeinek zainduko du herria bestelala», esan du Maria Jesusek.  
MARIA JESUS LUSARRETA



### A Agenda

#### Bertso bazkaria

■ **Alegia.** Bertso bazkaria hilaren 17an Egaña eta Lizasorekin. Txartelak salgai Kultur Etxean edota Jubilatuen eta Iskiña tabernetan.

#### Deialdiak

■ **Amezketeta.** Jose Mari Oterminen *Fernando eta bere garaiko Amezketeta* liburuaren aurkezpena 20:00etan udaletxean.  
■ **Tolosa.** San Joan eguna prestatzeko, eskopetariaren kapitainen bilera Kabi Alai elkartearen 20:30ean.

#### Ipuin-kontakteta

■ **Tolosa.** Miriam Mendozaren saioa Haur Liburutegiko ipuin txoan, 18:00etan.

#### Zinema

■ **Tolosa.** *La cinta blanca* filma Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

#### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga M. Martin Jose Iraola, 10. 943 678 24 38.  
■ **Betelu.** Carrillo A. Kale Nagusia, 5. 112.  
■ **Irurtzun.** Mutiloa A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

### A Agurrak

**agurrak** urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak, jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzan: Udaletxeko bulegoa

**KM** Kulturaren

Koldo Mitxelena Kulturarena  
Urdenera kalea 9 • 20006 DONOSTIA  
Tel.: 943 11 28 93  
programazioa@gipuzkoa.net  
www.gipuzkoa.net/kultura

## ERAKUSKETAK

PROCESS IN DIALOGUE  
Daniel Canogar - Stephen Dean  
Ezkerretik eskuera: 2010ko irailaren 10. eta 11. egunak

BASQUE SKI CLUBS  
Bostartzale militar botaeserak Lehen Karlistaduan  
Kulturaren erakundeak, 10. eta 11. egunak

**ORDUTEGIA**  
Asteartetik larunbatera:  
11:00-14:00 / 16:00-20:00  
Astelehena, igande eta jaiegunetan itxia.  
Bilketak gidatutik: [kultura@kmak.com](mailto:kultura@kmak.com)  
Tel. 943 112 734 / 647 346 923

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Kultura eta Turismo Departamentua

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza** info  
bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!  
**902-82 02 01**  
(Asteunetan 08:30-20:30 / Larunbateran: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31600 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ • N A: \_\_\_\_\_  
• Lanbidea: \_\_\_\_\_ • Jaioteguna: \_\_\_\_\_  
• Helbidea: \_\_\_\_\_ • Herria: \_\_\_\_\_  
• P.K.: \_\_\_\_\_ • Tel.: \_\_\_\_\_  
• Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_  
• Kontu zenbakia:

Ahazkarrak: 15/19991 lege-organismo. Datu Pertsonalak Babesteko, beharrik jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.L.-ren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, argizkiak dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezarritako eta kontratu egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi behidete honetara: TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.L.G.- Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa, edo harpidetza ghitza.lurto